

GENERO INDARKERIAREN
BIKTIMEN ENPLEGUA SUSTATZEKO,
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA
ESKUBIDEAK ETA
LAGUNTZAK



EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA

den arazo soziala ezabatu ahal izateko pertsonen gizarteratze moduetan aldaketa sakonak gauzatu behar dira, eta baita osoko jarduerak heziketan, gizartean, osasun sisteman, justizian, politikan eta lan munduan ere; honek gizarte osoaren konpromiso eta parte-hartzea eskatzen du.





Genero Indarkeriaren aurrean babes-
teko osoko neurriak jasotzen dituen
abenduaren 28ko 1/2004 Lege Orga-
nikoak, genero indarkeriaren biktimak
diren edo izan diren emakumeei zen-
bait lan eta gizarte segurantza esku-
bide eskaini eta bermatzen dizkie,
hauen helburua emakumeen lan-bete-
beharrak beraien babespen eta osoko
indarberritzearen beharrekin batera-
tzea delarik.

Honez gain, azaroaren 21ko 1917/2008
Errege Dekretuak genero indarkeria
jasan duten emakumeak laneratzeko
eta gizarteratzeko programa onesten
du, honek biktimek lan munduan sar-
tzeke erraztasunak edukitzeko, auto-
nomia pertsonala eta beraien
baliabideen erabilgarritasuna handi-
tzeko eta dagoeneko hasi den indar-
keria prozesua geldiarazteko lan-
neurri aktiboak ditu.

GENERO INDARKERIA EGOERAREN EGIAZTAPENA

Eskubide hauek eskuratzeko, langi-
leek genero indarkeria egoera egiaz-
tatu behar dute ondorengoaren bidez:

- Erasotzailea kondenatzen duen epaia.
- Epaileak bere alde emandako babes-agindua.
- Biktimaren babespenerako kaute-
lazko neurriak onetsi dituen ebaz-
pen judiziala.
- Salbuespenezko kasuetan, emaku-
mea genero indarkeriaren biktima
den aztarnak daudela azaltzen duen
Fiskaltzaren txostena, babes-agin-
dua ematen den artean.



• **Besteren konturako lan egiten duten langileen eskubideak:**

–Lan-denbora berrantolaketa, bere beharren arabera.

–Mugikortasun geografikoa enpresak lantokiak lurralde desberdinetan baditu.

–Lantoki aldaketa lanpostua lehenengo 6 hilabeteetan gordez.

–Lanaldi murriztea soldata murrizte proportzional batekin.

–Lanera ez joatea edo berandu iristea justifikatuzat joko da, gizarte edo osasun zerbitzuek hala erabakitzen dutenean, egoeraren arabera.

–Lan-harremanak denboraldi batez eten, lanpostua gordez eta langabeziaren ondoriozko prestazio eskubidearekin, 6 hilabetez eta 18 hilabetetara zabaldu ahal izanik ebazpen judizial baten bitartez.

–Lan-kontratua azkendu langabeziaren ondoriozko prestazio eskubidearekin, langilearen borondatez.

–Langabeziaren legezko egoera, lan-harremanak denboraldi batez eten edo azkendu direla berresten duen enpresaren idazki batekin eta biktimaren alde emandako babes-aginduekin edo Fiskaltzaren txostenarekin egiaztatuta behar dira.

–Enpresari batek genero indarkeriaren biktima den langile bat kaleratu egiten badu honek bere lanaldi murrizte, lan-denbora berrantolaketa, mugikortasun geografikoa, lantoki aldaketa edota kontratu etetzearen eskubideak erabiltzen dituen bitartean, kaleretzea baliogabetzat joko da.

• **Funtzionario publikoen eskubideak:**

–Lan-denbora berrantolaketa, Administrazioaren baldintzen arabera.

–Mugikortasun geografikoa, bere babesa eraginkorra izateko lan egiten duen herrian daukan lanpostua uztera beharturik dagoen funtzionarioak, ezaugarri berdinak dituen beste lanpostu batera aldatzeko eskubidea du, bertan lanpostu hutsik ez badago ere.

–Lanaldi murriztea soldata murrizte proportzional batekin

–Lanera ez joatea genero indarkeriaren biktimak diren funtzionarioentzat, justifikatuzat joko da, gizarte zerbitzuek hala erabakitzen dutenean.

–Eszedentzia: genero indarkeriaren biktima den funtzionarioak eszedentzia egoera eska dezake, aurretiko zerbitzu-denbora minimoa lan egin ez badu ere. Eszedentziaren lehenengo bi hilabeteetan ordainketa osoa jasotzeko eskubidea dagokio.

• **Beregaineko langileen eskubideak:**

Beraien babesa edo osoko gizarte-laguntza eraginkorra izateko, egiten duten jarduera etetzera beharturik dauden genero indarkeriaren biktima diren beregaineko langileei kotizazioak ordaintzeko beharra etengo zaie sei hilabetez, hauek Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokienez kotizatuak bezala joko direlarik, eta beraien egoera alta bezalakoa izango delarik.

ENPRESEI HOBARIAK GENE- RO INDARKERIAREN BIKTIMA DEN LANGI- GILE BAT ORDEZKATU BEHARREKO KASUETAN

Enpresa batek lan kontratua eten duen, mugikortasun geografikoaren eskubidea erabili duen edo lantokiz aldatu den genero indarkeriaren biktima den langile bat ordezkatzeko bitarteko lan kontratu bat izenpetzen duenean, ohiko gertakarien enpresa-kuotak %100 hobari emango zaie kontratua etena dagoen bitartean edo sei hilabetez mugikortasun edo lantoki aldaketa kasuetan.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN ES- KUBIDE EKONOMIKOAK

• Abenduaren 28ko 1/2004 Legeko 27. art.

Lana aurkitzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeenganako indarkeriaren biktimenzako berariazko laguntza ekonomikoa.

Lanbide arteko gutxieneko soldataren %75a baino gehiagoko errentak ez dituen genero indarkeriaren biktima den emakumeak, ordainketa bakar bateko laguntza jasoko du, bere adinagatik, prestakuntza gabeziagatik edota egoera sozialarengatik lana aurkitzeko zailtasun bereziak izango dituela susmatzen bada.

Orokorrean, laguntza horren zenbatekoa, langabeziaren ondoriozko diru-laguntzaren 6 hilabeteko baliokidea izango da.

Emakumeenganako indarkeriaren biktimak ofizialki aitortutako ehuneko 33 edo gehiagoko minusbalio bat daukanean, zenbatekoa langabeziaren ondoriozko diru-laguntzaren 12 hilabeteko baliokidea izango da.

Biktimak erantzunkizun familiarrak baditu, zenbatekoa diru-laguntza honen 18 hilabeteko baliokidea izan daiteke, edo 24koa

biktimak edo berarekin bizi den ahaide batek ofizialki aitortutako ehuneko 33 edo gehiagoko minusbalioa bat badauka.

Laguntza hauek abenduaren 11ko 35/1995 Indarkeriazko eta Sexu-Askatasunaren Aurkako Delituen Biktimei Laguntzari buruzko Legeko edozein laguntzekin bateragarriak dira.

• Gizarteratze Errenta Aktiboa (RAI).

(Behar ekonomiko berezi eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsona langabeentzat RAI programa arautzen duen 1369/2006 Errege Dekretua)

Baldintzak:

–Genero indarkeriaren biktima izatea.

–Gutxieneko soldataren %75a baino gutxiagoiko errentak izatea.

–Lan eskatzailea izatea.

RAI zenbatekoa: IPREMen (ondorio anitzetako errentaren adierazle publikoa) %80a. Programaren iraupena: 11 hilabete, gehienez 3 urte.

RAIa ez da bateragarria abenduaren 28ko, 1/2004 Legeko 27. art.-ko laguntza ekonomikoarekin.

• Etxebizitza eta zaharren egoitza publikoetarako eskubideak

Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak lehenetsuta duten kolektiboak kontsideratuko dira babespen ofizialeko etxebizitzetarako and zaharren egoitza publikoetarako eskubidea izateko, indarrean dagoen legeriaren zehaztapenen arabera (abenduaren 28ko, 1/2004 Legeko 28. art)

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEN GIZARATERATZE ETA LANERATZE PROGRAMA

(azaroaren 21ko 1917/2008 Errege Dekretua)

Arau honek dagoeneko ezartzen ziren neurri batzuk biltzen ditu, neurri berri batzuez gain, hala nola: enplegu zerbitzu publikoengandik arreta konfidentzial eta espezialitatea, mugikortasun geografikoarentzat languntza, lan-aldaketagatik jasandako soldata desberdintasunen konpentsazioa, eta enprekin edota enpresa- elkarrekin hitzarmenak.

Gizarteratze eta Laneratze Programaren jarduera neurriak, lan eskatzaile bezala izena eman duten genero indarkeriaren biktima diren emakumeak izango ditu onuradun. Neurri hauek ondokoak dira:

–Gizarteratze eta laneratze ibilbidea, banan-banakakoa eta langile espezializatuek egina.

–Gizarteratzera eta besteren konturako lan egitera laguntzeko berariazko prestakuntza programa, bertan, behar izanez gero, alderdi pertsonalak landuko dira, autoestimu eta enpleguarenganako motibazioa areagotzeko jarduerak eginez, eta alderdi profesionalak ere landuko dituzte programan parte hartzen duten emakumeek.

–Beregaineko jarduerak sustatzeko pizgarriak.

–Genero indarkeriaren biktimak kontratatzen dituzten enpresentzat pizgarriak.

–Mugikortasun geografikoa laguntzeko pizgarriak. Pizgarri hauek ondokoa hartzen dute barne: joan-etorri gastuak, higigarri eta tresnen garraioen gastuak, ostatu gastuak eta haurtzaindegi eta menpeko pertsonentzako arretarentzako gastuak.

–Soldata desberdintasunak konpentsatzeko pizgarriak. Neurri hau betetzeko kontratu-segida bat gertatu behar da, hau da, langileak bere kontratua azkentzen du bere borondatez edo bere egoeragatik behartuta eta azkendutako kontratuaren eta kontratu berriaren arteko soldata desberdintasuna ordaindu egiten zaio, soldata berria aurrekoa baino gutxiago bada. Gehienezko zenbatekoa 500 eurokoa izango da eta laguntza hau jasotzeko gehienezko denbora hamabi hilabetekoa.

–Enprekin hitzarmenak genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak kontratatzeko eta hauen mugikortasun geografikoa errazteko.

Neurri hauen kudeaketa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari eta enplegurako politika aktiboetan eskuduntza duten Autonomia Erkidegoetako organo edo erakundeei dago-
kie.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK
DIREN EMAKUMEAK
KONTRATATZEN DITUZ-
TEN ENPRESENTZAKO
P I Z G A R R I A K

(abenduaren 29ko 43/2006 LEGEA)

-125 euro/hilabeteen (1.500 euro/urtean) kontratua hasi eta 4 urteetan zehar, lanaldi osoko kontratu mugagabeengatik.

-50 euro/hilabeteen (600 euro/urtean gehienez) kontratua indarrean dagoen bitartean, denboraldirako kontratuengatik.

-Lanaldi partzialeko kontratuen kasuetan Gizarte Segurantzako kotizazioetan hobariak emango dira, indarrean dagoen arautegiaren arabera.

-Genero indarkeriaren biktimak kontratatzen dituzten enpresek, batez ere kontratu mugagabeak egiten dituztenak, autonomia erkidegoetan kontratazioa sustatzeko programetan adierazten diren baldintzen arabera diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte.

